# SEGMENTAZIOA

- **Gure diskoteka 18 urte baino gehiagoko gazteontzat zuzenduta dago, beraiek baitira gehiago kontsumitzen dutenak gueko aisian. Gainera diskotekaren prezioa 18€-koa da, beraien errenta eta eskainitako zerbitzuen balioa kontuan hartuta.**

- **Beste alde batetik, gure diskotekaren kokapena Artxandako San Roque bidean zegoen Miramar jatetxea da. Horregatik, gure bezeroen gehiengoa euskalduna eta bilbotarra izatea espero dugu hasiera batean, nahiz eta geroago, atzerritarrak erakartzea gustatuko litzaigukeen.**

- **Gazteon gehiengoak ez du diru-sarrerarik jasotzen, beraien gurasoek emandakoaizan ezik. Horregatik, eskaitzen diegu prezio jasangarria Bilboko beste diskotekekin konparatuz.**

- **Hemen daukazue konparaketak egiten lagunduko dizuen taula bat:**

**Hemen daukazue konparaketak egiten lagunduko dizuen taula bat:**

| PREZIOA | DISKOTEKAK | Eskaintzen ez dituzten zerbitzuak |
|---|---|---|
| 15 € | BACK & STAGE | + Terraza . Taxi zerbitzua, Janari zerbitzua eta Birziklapen zakarrontzia |
| 15 € | MOMA | Terraza . Taxi zerbitzua, Janari zerbitzua eta Birziklapen zakarrontzia |
| 15 € | BUDHA | Terraza . Taxi zerbitzua, Janari zerbitzua , Birziklapen zakarrontzia eta espazio gutxi |
| 12 € | SONORA | Terraza . Taxi zerbitzua, Janari zerbitzua , Birziklapen zakarrontzia eta segurtasun eza |
| 10 € | STAGE | Terraza . Taxi zerbitzua, Janari zerbitzua , Birziklapen zakarrontzia eta espazio gutxi |



Taula honekin, ikusi dezakegu nola prezio berdin edo antzekoengatik gure diskotekak zerbitzu gehiago ematen dituela. Klasean, galdetegi txiki bat egin dugu, gazteen beharrak aztertzeko:

***Inkestatuen kopurua: 17***

**1) Zein diskoteka aukeratuko zenuke: Famatua baina zerbitzu gutxikoa ala berria baina hainbat zerbitzukoa?**
- **Famatua: 3**
- **Berria:14**

**2) Beldurra daukazu gauean diskotekatik ateratzen zarenean etxera joatean?**
- **Bai: 11**
- **Ez: 6**

**3) Diskotekaren atean taxi bat baldin badaukazu, hartuko zenuke?**
- **Bai: 14**
- **Ez: 3**

**4) Uste duzu janari zerbitzua beharrezkoa dela diskoteketan?**
- **Bai: 15**
- **Ez: 2**

**5) Noizbait agobiatzen zara diskoteka barruan?**
- **Bai: 17**
- **Ez: 0**

**6) Dirua jasoko bazenu botilak birziklatzerakoan, egingo zenuke?**
- **Bai: 17**
- **Ez: 0**




Grafikoan adierazita dagoenez, egindako galderetan baiezkoa gehiengoa izan da. Honekin ikus ditzakegu gure diskotekak desberdintzen duten zerbitzuak baliogarriak izango direla gure bezeroentzat eta gustokoak izango dituztela. Haien segurtasuna eta erosotasuna bermatzea funtseskoa da gure enpresan, gainera, beharrezkotzat jotzen dugu gaua disfrutatzeko.

